


Sinbolo eta errealitate

Joxe AZURMENDI

Idazlea. EHUko irakaslea



Karlos Santamaria euskal kulturaren errealitate bat izan da eta sinbolo bat.

Gerra ondo gogoratu behar da. Galdu egin genuen eta euskaltzaleasuna lotsatuta zegoen. Konbentuz ezkutuetan bizi zen piska bat. Seminarioetan. Erresistentziako zoko txikietan. Zigorpean batetik eta desprestigioan bestetik. Base-ritar ezjakinen hizkuntza zarpaila zen euskara.

Santamaria euskaltzale agertu zenean, ustegabeko rekonozimendu bat bezala izan zen guretzat bapatean. Euskararen rekonozimendu publiko bat kulturako eremutik.

Santamaria matematikoa eta irakaslea zen. "Conversaciones Católicas Internacionales"-en antolatzailea. Pax Christi-ko Idazkaria (Parisen egoitza zeukala). Behin eta berriro hizlari gomitatua Frantziako Intelektual Katolikoen Kongresue-

tan: haren izena Mauriac, Gabriel Marcel, Feltin Pariseko Kardinalea eta momentuko izen ospetsuekin batera ikusten genuen aipatuta prentsan. Hitz batean, Santamaria intelektual internazionalki ezaguna zen. Euskaltzalearen tipo berri "bitxi" bat, esanahirik positiboenean. Euskaldunberria, gainera. Belaunaldi gazteari animo eta konfidantza handia ematen zion sinboloa.

Sinboloaren balioarekin errealitatea ere hasten da. Santamaria euskararen alde oso modu konkretuan agertu bait da: euskara kultur hizkuntza bihurtzeko ahaleginez, eta euskararen aldeko arrazoi kulturelez. Xede horrekin, ezaguna da Ikastolen mugimenduaren bultzatzaile izan zela (Santo Tomas Lizeoaren sortzaileetakoa). Baina, bera euskaldunberria izanik, 1963az gero euskaltzain urgazlea

da. "El euskara como lengua escolar" saioa publikatu du Euskaltzaindiaren aldizkarian. Aurreneko "Ikastola Hiztegia" burutzen kolaboratu du hor batez ere.

Aspaldikoa da euskarari buruz arrazoi politikoengatik arduratzea. Edo filologikoengatik, etabar. Santamariarentzat beti garbi egon da: herri baten nortasuna bere kulturaren datza eta kulturaren muina hizkuntzan dago. Euskal Herriaren muina euskararen: beraz, Euskal Herri moderno baten muina euskara moderno batean. Amets hori egiaztatzeko historia zailan izan dugu Santamaria errealitate eta sinbolo, egin eta eragin duenagatik adi-na, urte oso zailtan sinifikatu duenagatik.

Carlos Santamaria: promotor de las ikastolas

La identidad de un pueblo estriba en su cultura y la médula de la cultura en la lengua. La médula de Euskal Herria se basa en el euskara, por tanto, el quid de la Euskal Herria moderna, en el euskara moderno. En la difícil búsqueda de este sueño, hemos tenido la suerte de contar con Santamaria, como realidad y símbolo, actor e impulsor incansable en ese esfuerzo por convertir el euskara en lengua de cultura.

Carlos Santamaria: promoteur des ikastola

L'identité d'un peuple se fonde sur sa culture et la langue en est "la substantifique moelle", en Euskal Herria celle-ci est l'euskara, aussi, le hic de l'Euskal Herria moderne est l'euskara moderne. Dans la tâche difficile de réaliser ce rêve, nous avons eu la chance de pouvoir compter sur

Carlos Santamaria, à la fois réalité et symbole, acteur et animateur infatigable dans cet effort de faire de l'euskara une langue de culture.

EGILEAK

ERREDAKZIOA: Jon Basterra, Zuriñe Mendizabal. DISEINUA: Jon Elexgaray. ARGAZKILARIA: Iñigo Gallego. ARGITARATZAILEA: Euskal Herriko Ikastolen Elkarte. Balda Pilotalekua. 20.014 Donostia. Posta kutxa: 928. Fax: 943-465294 Tfnoa: 943-454088. INPRIMATEGIA: ONA S.A. Artica (Nafarroa)